

# ZIENTZIA

## hosto baten bizitzatik ikusita

GUILLERMO ROA ZUBIA  
Elhuyar Zientzia



i

### *The Life of a Leaf*

Steven Vogel

University of Chicago Press,  
2012

229 x 151 mm

ISBN: 978-0226859392

**L**andare baten hostoak, bizidun baten zati txiki batek alegia, zientziaz hausnartzeko aukera ematen du. Estatu Batuetako Duke Unibertsitateko Steven Vogel biologoak horixe proposatzen du liburu honen bitartez. Hostoa zientziaren eredu bihurtzen da liburuan. Alegia, nahiz eta izenburua *Hosto baten bizitza* izan, ez da hostoen (edo landareen) biologiar buruzko liburu bat.

Eguneroko bizimoduaren elementua da hostoa jendearentzat, edo, gutxienez, elementu arrunta eta ezaguna. Baina nolatan du duen itxura? Eta zergatik jokutzen du jokutzen duen modura? Hostoak, gure inguruan dugun beste edozein organismok bezala, elkarrekintza bat du “mundu fisikoarekin”. Elkarrekintza horren ondorioa da hostoa. Horrela azaltzen du Vogel liburuaren planteamendua hitzaurrean.

Hostoak argia bilatzen du. Gasak garraiatzen ditu. Ura xurgatzen eta iragazten du. Airearekin trukutzen ditu substantziak. Temperatura

kontrolatzen du. Azaleko garbitasuna zaintzen du. Izozteak saihesten du. Zurruntasunari eusten dio. Ekaitzetan bizirik irauten du. Eta beste jarduera asko ere egiten ditu. Horietako bakoitzari eskaintzen dio Vogelek kapitulu bat.

Kapituluaren gaiaren fisika aurkezten du, eta hostoarekin zerikusia duten ezaugarriak zehazten ditu. Argiari buruzko kapituluaren esate baterako, “argi-motei” buruz hitz egiten du (alegia, espektro elektromagnetikoa aurkezten du), eta gero fotosintesiari eta hostoak islatzen edo baztertzen duen argiari buruz hitz egiten du. Gauzak azaltzeko garaian, Vogelek oreka bat bilatzen du gaian profanoak diren eta fisikari ohiko planteamenduen artean. Eta noizean behin esperimentuak proposatzen ditu nork bere etxean egin ahal izateko.

Horregatik, batzuek, zientziaz irakurtzeko ez ezik, zientzia irakasteko ere egokitzen hartzen dute Vogel liburuak. ●